

## **BAKEZKO BIOGRAFIAK**

### **1.- Deskribapenak**

Taldeek elkarri indarkeria erabili gabe gauza garrantzitsuak lortu dituzten pertsona batzuen bizitza kontatuko diote.

### **2.- Helburuak**

- Bakearen alde egindako lanagatik historian toki bat duten pertsonak ezagutzea.
- Ekintza ezbiolentoaren ezaugarriei buruzko gogoeta egitea.

### **3.- Partaideak**

8 pertsonako talde bat.  
Adina: 14 urtetik aurrera.

### **4.- Materiala**

Biografia laburrak.

### **5.- Abiapuntuko arauak**

1. Talde txikia.
2. Talde handia.

### **6.- Garapena**

Jokalariak 3 pertsonatik gorako taldetan banatuko dira. Talde bakoitzari bakearen eta giza eskubideen alde borroka egiteagatik gailendu den pertsona baten biografia laburra emango zaio (Gandhirena, Rigoberta Menchurena, etab.). Biografia irakurri ondoren, talde bakoitzak pertsona horiek dituzten edo zituzten jarrera eta baloreei buruzko gogoeta egingo du. Jarraian, taldeko kide bat aukeratuko dute pertsona horretaz mozorrotzeko (Betaurreko borobilak, buruan zapi bat, toga...).

Mozorrotutako taldekideak pertsona horren bizitza eta ekintzak antzeztuko ditu. Beste taldekoek nor den asmatu beharko dute.

Azkenik, denek batera, antzeztutako pertsona bakoitzaren baloreak eta jarrerak eztabaidatuko dituzte.

### **7.- Ebaluazioa**

Nola sentitu zarete? Zerk eman dizue atentzioa pertsona horietatik? Zuen ustez, bakea eta giza eskubideak defendatzeko nolako jarrera eduki behar da? Eta nolako baloreak? Zer da indarkeriarik eza?

### **8.- Iturria.**

BAKEOLA. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo. 2004.